

Donostia, 2017ko martxoaren 10a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

MOZIO ARRUNTA TAUROMAKIA DELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, tauromakia dela eta, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Alderdi Popularrak 18/2013 Legea, azaroaren 12koa, Tauromakia Kultur Ondare gisa arautzekoa, onartu zuen 2013an. Haren helburua izan zen gainbeheran den jarduera bat babestea; jarduera bat, kontra gero eta jende gehiago duena, zezen-ikuskizun gehienetan zezenei ematen zaien tratu krudelaren ondorioz, zezenketak izanik adierazpiderik bortitzenak, tratu txarra animalien hiltzearekin burutzen baita.

Antza denez, tauromakia ondare kulturaltzat sailkatu izanaren ondorioz ari da Ministroen Kontseilua baimenik ez ematen, ez 10.000 donostiarrek eskatutako kontsultarako, ez gai berari buruz Estatuko beste udalerrri batzuetan planteatzen direnetarako. Berez, Ministroen Kontseilu berean, ukatu egin zitzaion Cienpozuelosko Udalari antzeko beste kontsulta bat egiteko baimena.

Animaliek merezi duten tratu duinarekiko gizarte sentsibilitatea gero eta handiagoa da; horren lekuko, hainbat herri egotea herritarren artean zezen ekitaldiei buruzko kontsultak egin nahi dituztenak, edo festa egitasmoetatik kentzea erabaki ere egin dutenak. Horrez gain, ezinbestekoa da aipatzea animalien babesari buruzko arau asko dagoela, erakunde maila guztietan, beste gai batzuei gailendu behar litzaiekeenak. Zoritxarrez, alderdi hori guztiz bazter utzi zuen Alderdi Popularrak lehen aipatutako legea onartu zuenean.

Gure taldearen iritzirako, tratu txarra eta tortura ez dira ez artea, ezta kultura ere, eta beraz, gizarte moderno batek ezin du jendearen gozamenerako animaliei tratu txarrak ematea kultur ondareztat hartzen duen lege bat.

Hori dela eta, hau da aurkezten dugun

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Kongresuari eta Senatuari eskatzen die indargabetu dezatela 18/2013 Legea, azaroaren 12koa, Tauromakia Kultur Ondare gisa arautzekoa, oztopo bat delako udalaren instalazioak tauromakiarekin lotutako erabileretarako erabiltzeari buruz hamar mila donostiarrek eskatutako kontsulta egiteko.

Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.